

GARAPENAREN PSIKOLOGIA ESKOLA ADINEAN (1. lauhilekoa)

TITULAZIOAK: Lehen Hezkuntza, Musika Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza

KREDITU KOPURUA: 3+1,5

SAILA: Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia

HELBURUAK:

Giza eboluzioaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea eta bereziki 0-12 urte bitarteko umeei dagozkien prozesu ebolutiboak.

Haurraren garapenarekin hertsiki lotuak dauden kontzeptuak aztertzea, hala nola: garapena, kultura, hezkuntza, testuinguruak, ... eta ikuspegi teoriko desberdinetatik erantzunak bilatzen saiatzea.

Umearen bilakaeraren prozesuan hezkuntzak eta bereziki hezkuntza-praktikek duten garrantziaz ohartaraztea. Halaber, familia- eta eskola-testuinguruko egoera ezberdinen bidez aztertutako kontzeptuak eta gaiak interpretatzea.

EDUKIAK:

1. -Gaia.Psikologia Ebolutiboa:

1.1. Psikologia ebolutiboan dauden teoria eta orientabide nagusiak: hurbilketa historikoa.

1.2. Garapena kontzeptualizatzeko oinarrizko elementuak: eduki itxiak, osagai irekiak, kanalizazioa, estadioak, topikoak, e.a. Garapen psikologikoa eta hezkuntza-prozesuak: kultura, hezkuntza-praktikak, garapena.

1.3. Garapenaren inguruko ikerketarako oinarrizko diseinuak.

2.-Gaia.Lehen Haurtzaroa (0-2/3): Ezaugarri psikologikoen azterketa eta hezkuntza praktiken eragina haurraren garapen prozesua hobetzako alderdi guztietan:

2.1. Garapen psikomotorea.

2.2. Adimenaren hastapenak.

2.3. Hizkuntz jabekuntza.

2.4. Gizarte-garapena eta nortasunarena.

3.-Gaia.Haurreskolako urteak (2/3-6/7): Ezaugarri psikologikoen azterketa eta hezkuntza praktiken eragina haurren garapen prozesua hobetzako alderdi guztietan:

- 3.1. Garapen psikomotorea.
- 3.2. Adimenaren garapena.
- 3.3. Hizkuntzaren garapena.
- 3.4. Gizarte-ezagutza eta garapen morala
- 3.5. Nortasunaren garapena eta gizarte-harremanak.

4.Gaia.Eskolako urteak (6/7-12): Ezaugarri psikologikoen azterketa eta hezkuntza praktiken eragina haurren garapen prozesua hobetzako alderdi guztietan:

- 4.1. Adimenaren garapena.
- 4.2. Gizarte-ezagutza eta garapen morala.
- 4.3. Nortasunaren garapena eta gizarte-harremanak.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

---***PALACIOS,J; MARCHESI,A; COLL,C.(bilduma) (1990/**1999an euskaratua): **Garapen psikologikoa eta hezkuntza, I. Psikologia Ebolutiboa**. EHUko Argitalpen Zerbitzua. (1go-19. Kapitulua). HAUXE IZANGO DA ERREFERENTZIA LIBURUA.

DELVAL,J.(1994): El desarrollo humano. Madrid, Siglo XXI.

---MIETZEL, G. (2005): Claves de la psicología evolutiva. Infancia y juventud. Barcelona, Herder.

---BERGER,K.; THOMPSON,R. (1997): Psicología del desarrollo: Infancia y adolescencia. Madrid, MedicaPanamericana.

---HOFFMAN,L.; PARIS,S.; HALL,E. (1995): Psicología del desarrollo hoy. Madrid, McGrawHill

EBALUAZIOA

Ikasgaia gainditzeko **azterketa** bat egin beharko da. Azterketak bi zati izango ditu: batetik, gai bakoitzaren inguruko bi galdera zabalaren artean bat garatu beharko da -8 galderetatik, 4 erantzun-, eta bestetik, orokorreko 10 definizio edo galdera objektiboetarako -test modukoak zuzen erantzun. Azterketa gainditzeko ezinbestekoa da galdera zabal guztiei erantzutea (hau da, 4 galderei), gutxi bada ere eta 10 galdera edo definizioetatik 7 zuzen izatea.

TUTORETZAK

Eskolako web orrian kontsultatu tutore bakoitzaren tutoretza ordutegia.